

Arantxa Urbe

HIK HASIKO KIDEA

PISAren neurriak

Iritsi dira PISA txostenaren 2009ko emaitzak eta gertatu da lurrikara hezkuntzan. Proba horretan, ELGEko (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundea) 45 herrialdetako 4. DBHko ikasleek parte hartu zuten.

Gehienontzat, PISA probaren alderdi ezagunena, seguruenik, emaitzen sailkapen zerrenda famatua izango da. Hala ere, ikasleak irakurketan, matematikan eta zientzietan duten maila ebaluatzeaz gain, proba horrek ere ebaluatzen ditu hezkuntzan esku hartzen duten beste hainbat alderdi.

Aukera bat litzateke PISA gutxies-ten saiátzea. Arrazoiak topatzea ez da zaila. Kanpo neurketa den heinean, haren interesgarritasunaren alde egingo dugu, ordea. Izan ere, proba horrek ikasleen errendimendua neur-tzeaz gain, ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan eragiten duten baldintzen gaineko azterketa egin nahi baitu. Eta horretan da, batez ere, interes-garria, gure ustez. Azterketa hori zehaztasun zientifikoz eginez gero, lortutako informazioari esker hezkuntza prozesuaren hobekuntza –hitzaren zentzu zabalenean–lagunduko ligu-keten urratsak eman ahal izango genituzke.

Gaude PISA proben emaitzak baloratzera-koan jendarte ikasleei begira jarri dela ia era-



ALBERTO ELOSEGI

bat, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan parte diren beste aldeak bazter utzirik. Batzuek esan dute, baina, gure hezigunee-tan irakasteko modua memoristikoa eta teo-rikoa dela kasurik gehienetan –gure garaie-tan bezala–, eta PISAren aztertze modua gehiago kokatzen dela tauletatik, datuetatik eta grafikoetatik abiatuz problemen ebazpe-
nean. Estilo desberdintasun horrek ez ote du inolako eraginik emaitze-tan?

Antza, emaitzetan gora egin duten herrialdeetan gehiago arduratzen dira irakasteko era hobetzeaz eta ez hain-
beste edukiak aldatzeaz. Gainera, udalak parte hartzen duen beste gobernu eredu batekin eta zentroen autonomia maila handiagoa duten testuinguru batean emaitzak hobetu-ko lirakekeela diote analista adituek. Kontuan izatekoa, ezbairik gabe!

Zer jendarte mota nahi dugu eta nola eta zein helbururekin hezi nahi ditugu bertako kideak? Erantzun die-zaiogun galdera horiei eta sakondu dezagun helburu horiek zintzoki beteko dituen Hez-kuntza Sistemak. Norabidea eta bidea garbi izanik, probetxugarriagoak eta aberatsagoak gertatuko zaizkigu PISA eta gisako beste kanpo neurketak. Helburua baino, lan tresna baliotsuak izango dira orduan: neurrian sal-duak eta neurrian erosiak! ■

« Antza, emaitzetan gora egin
duten herrialdeetan gehiago
arduratzen dira irakasteko
era hobetzeaz eta ez
hainbeste edukiak aldatzeaz »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Topatu zuena Gaztelako Getafen Realak. Paraje horietan euskal taldeak piper-potoz errezibitzen dituzte. Ohikoa dute, ez da probokazioa indar erakustea baino. Berdez jantzirik zeuden gureak, elastikoaren ezker besartean ikurrina zeramaten. Selektzioa zirudien. Antoinen (gure lagun salamankar batek Antxonito esaten dio) bigarren gola egin zuen eta elurrik eta kotxerik ez zegoenez, ikurrina musukatuz ospatu zuen bere jokaldia. Probokazioa. Horrela hartu zuen bertako zale-goak eta inork entzun nahi izaten ez dituenak orroka jaurti zizkieten. Taldekide batek baino gehiagok aurpe-

España cañi

giratu zion momentuan, Lasarteren kei-nuek ere, Antoinen ospakizunak desero-sotu egin zituela adierazten zuten. Parti-duaren ondoren, publikoki damutu zen jokalaria frantsesa. Nago, palkutik etorri zitzaiola gomendioa golen ospakizunak inprobisatzen ez duenari. Aldagela-ko zenbait esker oneko mezua igorri nahi ziela irudi-tzen zait, bikain tratatu dienei seguru aski. Ez zen tron-patu, hori nahi zuen egin. Antoinen ikasi du beste lezio bat oraingoan: gorrotatzen gaituzte Espainian, mende-ko nahi gaituzte, bestelakotuak. Eta inguruan, ikurrina bai baina babesle profesionaltzat, peajetzat nahi dute alegia. Espainolak ditugu. ■